

**BIZKAITARRAI-
BIZKAIERAZ***

www.euskerazaleak.biz

313n. zenbakia

2006 urterilla



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE

SAGARRA, GARAGARRA, MATSA, KAFEA, TEA, KAKAOA, TABAKOA

Ura izan zan gizakiaren lenengo edaria. Ez dauka usainik, ez margorik eta ez gozorik.

Orregaitik antxiñatik asi zan gure arbasoak beste edari bat sortzen. Orretarako basoko orri eta ale batzuk zapaldu eta irakin-azo ebezan, orrelan sortu ziran sagardoa, garagardoa, ardao, kafea ta tea.

Asturietan, Euskalerrria'n eta erdi-igarte onen iparralde osoan, ezaguna izan da sagardoa, edari urre-kolorekoa ta apartsua.

Agustuan batzen da orretarako dan sagar-motea. Lenengo jo eta zatitu egiten da, gero dollarara sartu ta estutu eta urteten da zukua upeletara sartzten da, an irakin egiten dau eta sasoi egokian botelletara sartu bear da.

Ebertarrak ezaguna eben beste edari bat, gero anglosajoiarten artean asko zabaldu dana, garagardoa.

K.a.'tik ogei gizaldi lenago, Ejipto'n, Osiris jainkoari eskintzen jakon, baiña egin, geienetan monastegietan egiten da.

Gaia batzutan lekaidetxeko ortuan ereiten zan garagara zan, baiña lupuloa be lagun izaten eban..

Lenengo garagarraren zukua ateraten da, gero lupuloreagaz pizka bat garrastu,

Antxiñako Ejipto'tarrak, gariagaz egiten eben, Errusia'n oloa ta zikirioa(zentenoa) erabilten dabez, Errumania'n artatxikia, sortaldean arrosa,, Mejiko'n artoa... eta garagardorik ezagunenak Beljika'koa, Alemanaiak'koa, Dinamarka'koa eta Angland'ekoa dira.

Noe izan ei zan, orain lau milla urte, lenengoz ardao egin ebana.

Erromatarrak Bako eben mastien jainko alai. Grezia'tarrak barriz Dionisos.

Fenizia'tarrak izan ziran Lur-Arte itxaso inguruetan matsa zabaldu ebenak eta Erroma'ko agintarien artean Numa lenengoz ardao edateko baimena emon ebana

Ardao-mota asko dago, batzuk alkooloez astunak, beste batzuk ariñak.,batzuk azukaratsuak beste batzuk legorragoak, batzuk zuriak eta beste batzuk baltzak.

Erdi-ugarte onetan ezagunenak Priorato'ko, Baldepeñas'ekoa ta Errioxakoa dira, baiña munduan ezagunenak Jerez'ekoa eta "manzanilla" deritxona. Gozo-zale zareenok edan Malaga'ko moskatel ardao.

Agustuaren azkenetan masti bellegituetara sartzten dira zozo mats-zaleak eta morda elduetatik jaten dabe.

Otsarak matsez bete-ondoren, oiñakaz zapaldu egiten da matsa eta gero dollarara sartu ta estutu. Zukua ohea edo txarragoa izatea, lurraren ondorena da eta gero garrantzi aundia dauka lurgiñak emoten dautson tratametuak.

Frantzia'n Borgoña'ko ardaa da entzute aundiako, Portugal'en Oporto'koa, Alemania'm Rin ibaiaren ingurukoa, eta Italia'n "lacrima Christi" deritxona.

Kafe-landarea Abisinia'n sortua dogu.XVI gizaldian andik Arabia'ra eroan eben eta emendik zabaldu zan mundura.

Europa'n lenengo kafea txastatu ebana XIV Luis Errege Eguzkia izan zan,1661n. urtean. Olandarrak eskiñi eutsoen kafe-landara bat eta erregak ondo zaindu eban bere ortuan,gaur be ikusi daiteke ortu au Paris'en. Gero Ameriketara eroan eben landara au eta orain Brasil dogu kafegillerik ugariena. Iñoz ugariegi dagoalako erre be egin bear izaten dabe.

Kristoren aurretik bi milla ta bosteun urte lenago, ezaguna zan tea. Asia'n, baiña ez zan agertu Europa'ra XVII gizaldira arte. Anglandarrak izan ziran geien onartu ebenak.

Te-landarea berez sortzen da Tonkin'en eta Txina'n eta an orlegi dagoanean

legortu eta orriakaz egindakoa artzen dabe, Europa'tarrak gurago dabe irakindako te baltza.

Te-landarak ugarien daukezan lurraldeak Indotxina, Zeilan, Txiña , India eta Japon dira.

Kakaoa luzaroan eta Mexiko'n aberatsak bakarrik jaten eben.

Kakaoagaz uruna egiten dabe eta azukerea ta bainilla nastau, orrelan txokolatea sortzen da.,oso zabal dabillen janari gozoa.

Kristobal Kolon Ameriketara eldu zanean, 1942n. urtean, angoak orri biribildu batzuk eskiñi eutsoezan, ertzen baten biztu eta bestea agoan zala erreten zan landarearenak. Sortzen zan lurruna, gozoa zan. Gero Kuba'n artu eban tabako izena.

Medizis'ko Katalina erregiñeak sarritan izaten ebazan buruko miñak eta tabako landareak sendotzen eban. Orregaitik dau an "Erregiña bedarra" izena.

Errusia'ko Pedro Andiak tabakoa erreten ebenai zurra eta espanak ebagiteko agindua emon eban. Kontuz ibilli bear!

Ez dakigu ziur Kolon'ek gure Erdi-Ugarte onetara tabakorik ekarri eban, baiña bai Europa'ra lenengo tabakoa ekarri ebana Santo Domingo'n agintari zan Obiedo-Hernandez'ek izan zala,1519n. urtean.

Urteko iru milloi tone baiño geiago batzen da tabakoa.

ZUGAITZ ZELAIAK LIZARRAN

Ba dauka Lizarrak toki bat guztiz berexia, ederra, benetan, danentzat atsegiña. Abo ZABALIK GOGOTIK DEITZEN DUTENA: “LOS LLANOS”.

Naparroko erri askotan izenak euskara garbian dauzkate. Maiz ikusten duguna “PAGOZELAI” da. Benetan toki zoragarria, erosoia ta zabala, Gorritiko errian.

Beste toki bat ba daukagu izena illuna duna, Andi-mendiko sarreran. Beste leku onen izena ZUNBELTZ da; Lezaungo errian. Izen onek, Eskudero musikalaria, euskal opera bat idazten ari zala, ZIGOR operarentzat, agertzen dan gizon gaiztoarentzat izen gogor batentzat On Manuel Lekuonari eskatu zion bere iritzia, onen erantzuna alaxekua izan zan; “ZUNBELTZ IZENA JARRI BEAR ZAIO”. Gaur esker txarrak bota dute, ankar gora, ZUNBELTZ IZENENKO VENTA.

“LOS LLANOS” izeneko tokiak merezi luke euskal izen bat jartzea: tokia benetakoa, naiko erosoia, zabala aurak jolasteko eta lasterka ibiltzeko ta udaran epela. Zugaitz galantak, egokiak ditu egurasten ibiltzeko. Lizarra errian nola beroaldiak izaten dituzten, erria nola ur ondoan dagon naiko atsegiña da toki ori. Ibaia laster dijoa erria milikatzen ta itzala zabaltzen.

Lizarrako ibai onen izena EGA da. ZUMARDI onen izenak urez asetzen ditu leitze aundi batzuek, ondo bustitzen ta itzal ederrak zabaltzen dijoa.

Ibai au bizpauri zubi azpitik doa ibilli-aldia zabaltzen erriaren inguruan naiko erosoia; bertan dago beste lurralde polit bat elizatxo baten azpian, etzanda lasai egoteko atsegiña, toki zoragarria. Ibai ertze au ederra da, opari aundi baten mallakoa, opari au izadiak eskeintzen digu.

Lizarratik urruti nengoela, SAN ANTONIO, TEXASen, ain zuzen, ango ibaiak ikusten ari nintzala, Lizarrako zelaiak burura etorri zitzaizkidan.

Ango lurraldeak gogoratzen zidan San Antonioko ibaiaren edertasuna, bertako gizonak egin zutena goimallako eredu bat bezala ta asmo bat zetorkidan burura; “Zergatik ez ote dituzte Lizarrako gizon taldea SAN ANTONIORA bidaltzen ibai ondoan egin zuten lorategia ikusteko, EGA ibaian ikus zezaten nola moldatu gauzak, egokiago egiteko ibai ertzean.

SAN ANTONIOKO eredu atsegiarria izan leike Lizarrarentzat, amesgarri ta berexia. Egunez, egun sentiaren argia dugula, gabez illargi betearekin izan leike atsegin eta zoriontasun aundia ematen dun egurasteko lekua.

Ortxen dago tokia, iñoiz ezin duguna aztu alkar izketaren gogua sortzeko, baita asmo ederrakin etxeruntz joateko. Egurasteko izan dezake zelai onek izen aundi bat. Erriarentzat izan leike biltoki atsegiña.

Zelai onen berexitasuna billatu dezakegu orain. Ortarako euskaldun izen bat ere ez litzaioke gaizki etorriko.

Gaurko gizasemeak aitortu dezaten zelai onek izan zula egitazko maite-minduak biotz zabalik esan dezaten: “ERRI BAT IZAN ZEN”.



LATXAGA

Artu det zuek bialdutako liburua Millaka esker, Jaunak ordaindu deizuela dana. Emen bertso bat zuentzat.

Eskerrik asko nere partetik
zuen laguntza gantikan.
“Ama Birjiña lagun eiezu
zuek auezi zerutikan,

zure eskua eman eiezu
badaude nekaturikan.
Gero zerura eraman Ama
biotzak alaturikan”.

ALDALUR'tar Justiñe'k
(Klaratarra)
(Gasteiz'en)

PATXI ITURBE ALBERDI

Gure aitte 1895eko maiatzaren hamabostean jaio zen Azkoitian. Izenez Patxi Iturbe Alberdi eta ezizenez Patxiko Putre. Osaba, apaiza zeukan –Don Domingo Alberdi– eta urtero urtero hogeitabost bat ume bidaltzen zituen komentura. Bi anaia gazteenak karmelita eta gure aitte Santanderreko Comillasera jesuita. 10 urte besterik ez zituen. Adarra jotzen zioten maiz herrikoek Don Domingori honengatik, baina bere ustez, kalterik ez eta beti ere kultura jasoko zutela zioen.

Gure aitek ez omen zuen bokazio handirik eta hola idazten omen zion amari baina, amak, holakoetan “fuera demonios yo estoy bien aqui” esan eta etorriko zitzaiola esaten omen zion.

Hemezortzi urte betetzera zihoala gaisotu egin omen zen Comillasen eta osatu zenean zuzendariak bulegora deitu omen zion. Bertan, zuzendariari bisita bat etorri eta bakarrik gelditu omen zen momentu batean, bere amaren eskutitz bat ikusi omen zuen non aitaren heriotzaren berri ematen zion. Amorrutik beteta zuzendariak ezer esan ez ziolako hanka egitea erabaki zuen. Goizeko lauretan okinaren gurdian sartu eta Santanderrera. Trenz Zumarragara eta kotxe landuan Azkoitira.

Egun argiz iritsi nahi ez zuelako Aingeru Guardako kapillan egon zen ilundu arte. Ilundu zenean etxera. Iturrengo egunean osaba Domingok zer egin zuen jakin zuenean kastiguz Maltzeta Txitxo izeneko baserrira bidali zuen.

Bertako semearekin, Antoniorekin, ardi zain joaten zen eta gauerako itzuli. Afaltzeko gatz ura eta urdaia ematen zieten eta baten baino gehiagotan, deskuidatuz gero, katuak jaten zien. Makilkadak akabatzea erabaki zuten arte.

Afal ostean errozariora errezatzen zuten:

– Aita gurea zeruetan zerana... –eman al diozue jaten ganadu horri?

– Agur Maria graziaz betea... –zer egiten du argi horrek piztuta!

Eta letaniak.

Mater mandanga

Piper potes

Pelixen anka

Espekulu Patxixi

Virgo pitilis

Azoka eguna zen Elgoibarren. Azkoititik oinez joaten omen zen jendea eta gure aita ere horrela joan omen zen, errebolberra erosteko asmoz. Eguna azokan pasa eta iluntze aldera etxera. Afari-merienda bertako taberna batean egiten ari zela, azkoitiar kuadrila bat ikusi zuen eta haiekin itzuliko zela pentsatu omen zuen bere artean. Ordaintzerakoan alde egin zutela konturatu zen baina, etxeoandreak orduantxe alde egin zutela konturatu zen baina, etxeoandreak orduantxe alde egin zutela eta harrapatuko zituela esan zion.

Abantatu zen bidean aurrera eta pagotegi batera iritsi zenean aproba bat egitea bururatu zitzaion, errebolberrak nolako zuloa egiten zuen ikusteko. Tiro egin, poxpoloa piztu eta zulo ederra pentsatu omen zuen, inor ikusten ez zuenez eta. Katuingo zuloa izeneko tokira hurbiltzen ari zenez, errebolberra kargatu eta eskua poltsikora eraman zuen, askotan lapurrak ibiltzen baitziren inguru hartan.

Bertara iritsi zenean, “alto manos arriba” entzun zuen, tiro aidera eta antxintxika batean Aingeru guardara iritsi zen arte. Ijituak omen zeuden eta poxpoloak eskatu omen zizkioten eta eman eta segi korrika etxera iritsi arte. Hurrengo goizean osaba Domingo abadea haserre, zertan ibili zen bezperan Katuingo zuloan kuadrilako bati belarrian tiro egiteko. Dirudienez gure aitte, atzetik zutela konturatu eta sustoa ematea bururatu zitzaion.

Ondorioz errebolberra kendu eta ezkondu zenean itzuli omen zion osabak. Pasaiara etorri zirenean bizitzera Txapel fabrikari lan egin zuen eta pabelloi berria egiten ari zirela han ezkutatu omen zuen bi pareka arten errebolber hori. Gure aitte hil zen, fabrika bota zuten eta errebolberraren arrastorik ez.

Milagros Iturbe

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

“FRANCO IL EGIN DA” ”FRANCO.. HA MUERTO”

(Ogeita amargarren urtean)

España'ko TV, 2n. katean ekiñaldi bat ikusi eta entzuten egon nintzan Franco il zanetik 30n. urtea zala-ta eta arrituta itzi ninduen abadeen eta Eleizearen aurka entzun nebazan salakuntzak. Euren artekoa zan Garcia de Kortazar. Nitzat gauza argia zan an berba egiten eben filosofoak eta edestizaleak ez ekilela ezertxu be gure burrukari buruz eta antxe bertan artu neban idaz-lan au idazteko erabagia.

Abade euskaldunak gogor be gogor jokatu gendun Franco'ren aurka eta jokabide orren ondorenak be gogorrak artu genduzan. Ez ete dakie gizon jakitun orreik zer izan zan Zamora'ko espetxea, esaterako. Ez ete dakie, lenago, guda amaitu baiño be lenago, amazazpi abade gure lagunak il ebazala Franco'k eta 500 abade euskaldun bialdu ebezala erbestera zigortuta?

Bear ba'da esango dabe: Abadeak bai, baiña gotzaiñak?

Gotzaiñak, nai ta nai ez, Franco'ren aldekoak izan bear, bere baimenagaz gotzain egiñak ziralako. Eta ori izan zan gure kurutze bat: Gotzaiñak geure aurka euki izatea. Alan eta guztiz be irakurri begie gure Mateo Mujika'ren “Imperativos de mi conciencia” agiria.

Baiña neuk urrago bizi izandako arazoetara sartuko naz orain.

Zortzi egun egin genduzan gotzaindegian sartuta, ingurua guardiz beterik geunkala, jakiak oso urri eta olaren gaiñean lo egiten. Ogeita amar bat abade izango giñan.

Gero, ekintza gogorrago batera sartzeko, Derio'ko Seminarioan artu genduzan gela batzuk, eta antxe igaro gendun illebeta osoa, gotzaiñak mezea esateko eskubidea be kenduta. Bertan barruan edo inguruan 120- bat abade giñan. Neu joan nintzan euren izenean Paris'ko irratira zabalkudea egiten eta gero Erroma'ra gure agiria Aita Santuaren eskuetan eldu daten. Neuk joan bear izan neban, beste iñok pasaportetik ez eukelako. Niri be kendu eusten, obeto esateko eroateko agindu, baiña ez nintzan joan eroaten eta gero ez ziran konturatu kenduta egoala.

Andik lasterrera barrero joan nintzan Paris'era La Ponpe kalean egoan España'ko Enbajadaren Eleizea artzen eta etxerantzean Donostia'ko gotzain-eleizan sartuta egon giñan gotzain-barriaren sarrera zalata.

Orreik orrela, urte batzuk geroago, 1970n urtean Zeanuri'ko parrokian izan ziran urrengo ekintzak, eleizearen orman egozan eta Franco'ren alde il ziranen izenak eukazan arri idatziak kendu nebazalako eta aiuntamentuari eleizara korporaziño lez ez etorteko esan neutsolako. Gutuna alkate euskaldunari euskeraz egin izatea be zigorbide izan zan.

Parrokian bertan egin eben”acto de desagravio”: Berrogei autobus joan ziran eta buru Giobertazaillea, Col San Simon, eta Bilbao'ko Alkate-emea Pilar Careaga izan ziran . Gorrotozko aurpegi asko ikusi nebazan eta izen bako amabost karta artu be bai, geienak meatxuz edo zemaiz beterik, il egingo nabela esaten

180 000 pezetako isuna ezarri eusten, eta ordez, illebeta egin bear izan neban, espetxe-antzer, Olite'ko Frantszkotarren lekaide-etxean. Nire esker ona lekaide on arei.

Eta gu orrelan, era bildurgarrian, aurrean erabilliak izan giñan aldi aretan, non egon ziran gaur izlari arro eta irainzaille diran jakitun orreik? Ez ete ziran egongo Madrid'eko Plaza de Oriente'n iltzearen egon Franco zarrari gure iraiñien parkamena eskatzen beste 500.000 españatarren artean? Areik ez ziran abadeak!

Euretariko baten batek esan leike: Ni orduan umea nintzan. Ba ederto, umea ba'ziñan ez zaite sartu elduen eta zarren alkar-izketara. Zagoz isillik edo berba egiteko jakin gauzak obeto!

Beste gauza asko be asko esan neikez, baiña gaurkoz naikoa da. Jakin begie edesti-zaleak edestia zelan izan zan.

OLAZAR'tar Martin'ek

MAITASUNA

Lore bikaiña zara,
ederretan ederren
giza biotzetan,
zure usain ezitia,
poza zabaltzen doa,
gizonen artean.

Bake ta ongi-naia
eskeinduten zabiltzaz
gogorik onenaz,
zure urre izatez
alkartuten dituzu
biotzak pozagaz.

Gizarteko lorra,
ixilik, ondu dozu
gizonen bizitzan,
zerua eta lurra
zeuk alkartuten dituzu
gizonen baratzan.

Lorerik ederrena
zeure izatez zara
mundu zabalian,
keska eta arantzak
larros biurtu dozuz
gizonen bizian.

Maitasun zoragarri,
zerua eta lurra
daukazuz aurrean,
txit, indartsua zara
gizonak goratuten
zorion bidean.

Lurreko zori ona,
on-giroz, sortu dozu
biotz minduetan,
eskerrak, maitasuna,
zure egintza onez
jarrai gizonetan.

Paulin

BIZKAIERAKO ONERI TA ORRERI DATIBOAK

Beste euskalki guztietan *oni* ta *orri* erakusleak (pronombres demostrativos) erabilten dituez. Komeni da ikertzea zeintzuk diran jatorrenak, kontuan artuta jakintzu guztiak, beste milla bider legez, bizkaierakoak ipinten dituela atzean, *oni* ta *orri* zarragoak dirala esanez inolako probarik aurkezten saiatu barik. Ainbeste urteetan gertatu dan legez, bizkaierako itz asko ez dira aintzakotzat artzen eta baztartuta lagaten dira.

Bizkaian, *neu/neu-k*, *eu/eu-k*, *geu/geu-k*, *zeu/zeu-k*, izen ordaiñak (pronombres personales) inon baiño geiago erabilten dituguz eta beste euskalkietan, *ni/ni-k*, *i/i-k*, *gu/gu-k*, *zu/zu-k*, geiago. Aspalditik dakigu, antxinako denporetan, *neu-r/neu-r-k* eta *zeu-r/zeu-r-k* idatzi zituzela Axular, Iztueta, Larramendi, Van Eys, Pouvreau, Undiano ta Ondarra idazleak euren idatzitan. Axularren *neu-r* bizkaierako *neu* zala esan eban Irigoyen bizkaitarrak. Orduan, *neu-r* da jatorrena, gero *neu* ta azkenean *ni*. Oin dala urte bete, Lazarragaren 500 urtetako esku-izkribu bat aurkitu zan. Idazle onek ipinten zituzan, denpora areetan, bai len aitatu dituguzan *neur/neur-k*, *zeur/zeur-k* eta baita be, onerarte aurkitu barik zegozen, *eur/eur-k* ta *geur/geur-k*. Orduan, genitiboak *neur-e*, *eur-e*, *geur-e*, *zeur-e* dira ta datiboak *neur-i*, *eur-i*, *geur-i*, *zeur-i*, bizkaieran asko erabilten diranak

Erakusleeta itzulirik berriro, ikusi daiguzan nola sortu ziran antxinako denporetan. Itz bigaz konpondu ziran. Lenengo zatia **aur* zan (bere jatorriaren ikerketa emen ez dogu ipiniko luzea dalako) baiña “gauzak” izentatzeko sortu zan eta ez “personak”, eta bigarren zatia, esate baterako, *neur*, izen ordaiña, “personak” izentatzeko. Orduan, **aur* + *neur* > **aur-neur*/**aur-neur-k*. Onen esan-naia zan, asiera baten beintzat: “neugaz” edo “neure ondoan” dagon “gauza” = gaurko *au* = erderazko ‘esto’. Era berean, **aur* + *eur* > **aur-aur*/**aur-aur-k*. Jatorrizko esan naia: “eugaz” edo “eure ondoan” dagon “gauza” = gaurko *ori* = erderazko ‘eso’. Len esan dogun **aur*, bakar-bakarrik, bigarren zatirik geitu barik, onelan aldatu zan: **aur* > *ar* > *a* = gaurko *a* = erderazko ello/aquello. Onelan aldatu dira andik onerarte: **aur-neur-k* > *au-neu-k* > Bizkaian *au-ne-k* /*aunek* > Euskalerrri osoan *onek*; *aur-aur-k* > *aur-eu-k* > Bizkaian *aur-e-k* /*aurrek* > Euskalerrri osoan *orrek*; *aur-k* > *ark* > *arek*.

Ondoren, erakusleak datiborako euki zituzen aldaketak onek dira:

<i>aur - neur + i</i>	(datiborako i)
<i>au - ne r - i</i>	jatorrena, Bizkaian bizirik dagona baiña gutxi erabilten dana
<i>o - ne r - i</i>	Bizkaian normalean erabilten dana, zarrena Euskalerrrian
<i>o - n - i</i>	beste euskalkietakoa, jakintsuak zarrena dala esaten dauena baiña probatzen saiatu barik. Argi ikusten dogu barriena dala
<i>aur - eur + i</i>	(datiborako i)
<i>aur - e r - i</i>	jatorrena, Bizkaian bizirik dagona baiña gutxi erabilten dana
<i>o r - e r - i</i>	Bizkaian normalean erabilten dana, zarrena Euskalerrrian.
<i>o r - - i</i>	beste euskalkietakoa, jakintsuak zarrena dela esaten dauena baiña probatzen saiatu barik. Argi ikusten dogu barriena dala
<i>aur - + i</i>	<i>aur</i> bakar-bakarrik, bigarren zatirik barik

a r - - i betikoa, Euskalerrri guztian erabilten dana. Bizkaian, *areri* be erabilten dogu sarritan baiña ez da jatorra. Argi ikusten da *oneri* ta *orreri* kopiatuta, analogiaz, sortua dala.

Argudio oneei laguntzeko, ikusi daiguzan genitiboan gertatu ziran aldaketak:

<i>aur - neur + en</i>	(erakusleen genitiborako marka dan - <i>en</i>)
<i>au - ne r - en</i>	Bizkaieran bizirik dagon <i>aunen</i> -en aurrekoa
<i>o - ne r - en</i>	Landuchiok 500 urtetako iztegian dakarrena, araba-bizkaieraz
<i>o - ne - n</i>	barriena, Euskalerrri osoan usatua
<i>aur - eur + en</i>	(erakusleen genitiborako marka dan - <i>en</i>)
<i>aur - e r - en</i>	Bizkaieran bizirik dagon <i>aurren</i> -en aurrekoa
<i>o r - e r - en</i>	Landuchiok 500 urtetako iztegian dakarrena, araba-bizkaieraz
<i>o r - e - n</i>	barriena, Euskalerrri osoan usatua
<i>aur - + en</i>	<i>aur</i> bakar-bakarrik bigarren zatirik barik
<i>a r - - en</i>	betikoa, Euskalerrri guztian erabilten dana

Badagoz, Bizkaieran ain zuzen be, beste ainbat itz, onerarte esan doguzan itzen lagunak diranak. Ara nola: *onerik* aurrera = emendik aurrera baiña zarragoa; *oner*-ean, ziurrenik *oneren*-etik sortu dana; *oner*-a = ona; *orrer*-a = orra; *ar*-a = ara; *oner*-aiño; *or*-aiño; *ar*-aiño; *oner*-arte; *or*-arte; *ar*-arte.

Onek danok ikusita, argi dago komeni dala bizkaiera kontuan artzea euskera osoaren onerako, egunen baten gure izkuntzaren jatorria aurkitzerik izaten dogun euskalki guztien laguntzagaz. Dirala 300, 200, 100 urte ta onerarte, beti nabari izan da jakintsuak ipiñi deuten “maila ilustreak” euskalkiei. Beti ipiñi dituez Iparraldeko euskalkiak toki gorenean, gero gipuzkera-naparrera eta beti atzenean, baztartuta, bizkaiera. Ori ez da jarrera zuzena. Ez dago euskalki onik eta txarrik, obeagoak eta txarragoak. Bakotxak bere aldaketak euki dituz antxinako euskera bakarraren enborretik abiatuta. Euskalki danak dituez euren akatsak baiña baita be euskera zarraren lekukotasun asko, jator-jatorrak diranak. Eta, au da gogorrena, antxinako lekukotasun zar eta jator orreek geien gorde dituzena bizkaiera da. Gai onetan, bizkaiera dago euskalki guztien buruan. Zertan ari gara orduan?

Lenago ikusi dogun legez, bizkaierako *oneri* ta *orreri*, jatorragoak izanik *oni* ta *orri* baiña, eta euskaldun guztien erdiak erabilten dituzenak, zergatik ez dira artu euskera batua osatzeko? Esan eben “gipuzkera osotua” izango zala batuaren oñarria. Begi bistan dago zelako aukera ederra galdu dan agindu ori betetzeko. Zelan ulertu bear dogu au?

Badirudi, gure jakintsuak, ez len eta ez oin, ez dauela uste izan bizkaieratik ezer onik atara leikenik eta bizkaiera albo baten lagatzeko joera oker ori artu daue, eta gañera, ezer be azertu barik, zeozelan esateko, euren jakituria bear-bearrezkoak diran ikerketa sakonen gañetik ipiñirik. Ezer probatzen alegiñik egin barik eta inolako errazoirik bage bizkaiera desprestigiatuz.

Orrelako gertaera oker ugari jaso dituz bizkaierak urrengo artikuluetan ikusiko dogun legez. Euskalki onek bizirik gorde dituz ainbeste ta ainbeste itz eta molde jatorrak Bizkaiko erriari erakutsi bear diranak, bere euskalki zar eta eder oneri berez sor jakon prestigioa bihurturik eta arro egon dadin beragaz, bidezkoa dan legez, batzuen itsukeriai jaramonik egin barik.

Iker J. Laka Guenaga

TURISMOA LIZARRAN



Turismoak garrantzi handia dauka Lizarran. Nafarroko iri koxkor onek ba du turismoa ondo antolatua, Merindade edo jarerriaren buru daukagu Nafarroan; sartaldean datza ezarria iri koxkor au, mendiz ingururatua ikusten dugu. Ba ditu eliz erromaniko ederrak. Gaiñera Santiagoko bide ondoan datza ezarria.

Bertatik dijakio EGA ibaia ederra. Andimenditik asita Ebro ibaiaraño erri guztiekin arremantetan dago. Astero daukate merkatua edo azoka, Nafarroan ederrenetakoa.

Gaxotegi galanta ere ba dute. Turismo aldetik badaukate oficina ederra, lurralde orren berriak ematen dizkizutenak. Etxe osoa dute turismoari laguntzeko; antziñako Nafarroako errege etxearen aldamenean, San Martiñen enparantzaren ondoan. Beti ikuslez inguratua izaten da. Turismoa zaintzeko tokia ezin ohea.

Ortxen bertan daukate Guztabo de Maeztu margolariaren erakusketa. Turismoa eratzeko toki berezia.

Ortxen agertzen dituzte inguruko lurraldeen emaitzak edo ondorioak. Amoa ezin ohea. Liburu pillak daukate orko berriak emanez; berri zarrak eta gaurkoak.

Ikusi ditzakegu ardo gorri ta txuriak Nafarroan, or bertan egiñak. Oietan batzuek ludi osoan eratuak. Iratxe izenekoak ain ezagunak ere. Besteak Monjardin izenekoak. Mastegi galantak daude or inguruan.

Erri geienetan egiten dituzte bere ardoak. Dasta ta margoz begiak eta mingaña txoratzen dituztenak. Orko tolaireak oso izen aundikoak dira.

Gora ta bera or ikusten ditugu Santigoko erromeslariak, geienak oñez dijoazte, nazio-arte askotakoak.

Artzai ta baserritarren eskulanak ere agertzen dituzte turismoko etxe onetan; egurrezko zaliak eta sardetxoak eta nola ez, ardo zagiak. Urbasa ta Andimendiko ardi gasna onak ere ementxen saltzen dituzte.

Beste ainbeste erran dezakegu bertako baratzetan egiten dituzten barazki goxoekin; kardaberak, alkatxofak, zain zuriak edo esparragoak, babarrun zuriak edo potxak deitzen dituztenak.

Oso ezagunak ere dira bertako kafesniarekin egindako goxokiak. Gañera lepoa apaintzeko muxuzapiak, gazteak eta gaztetxoak jartzen dituztenak oso atsegiñak izaki ta erriko jaietan margo ederra ematen die egun bereziei. Izen polit batekin deitzen dituzte errian; "Kukuxumuxu" zapiak.

Salgai ere daukate zillarrezko lauburuak; euskaldun edergallu bezala. Igeliak usai onezkoak botilletan erosi ditezke, batez ere muxikak eta baxakanak.

Eztia bertako eultzetan egiten dituztenak eta basaloreak urrun joan gabe biltzen diranak.

Baxaranekin egindako patxarana, edari bizigarri artzen dute; patxaran izenarekin ezagutzen dana.

Mapak ere ugari daukate lurralde zoragarriak ezagutzeko, bai mendi aldetik, baita ego aldera, Ebro ibai ondoan; lurralde denak uste baño ederragoak.

Gadezka dijoazten guztiak galderak egiten dituzte eta gizasemeak etengabe urbiltzen dira. Lenik lan eder ori egiteko iru neskaxa eta bi mutil daukate. Oietatik bizpairuk euskara maite dute. Lana ontan euskal kutxua agertzen dutenak bearrezkoak dira.

Latxaga



11 MAY 2005

SARRERA	IRTEERA
Zk.	Zk. 722

TOLOSAko (GIPUZKOA) KARDABERAZ JAKINTZA BAZKUNA Elkarteak eskatutako desegite-inskripzioari buruzko erabakia eman zuen 2005eko maiatzaren 4an, Azterlanen eta Araubide Juridikoaren zuzendariak.

Ildo horretatik, jakinarazten zaizu zeuk nahiz baimendurik dagoen nornahik honako agiri hauek atera ditzakeela, beharrezko tasa ordaindu ondoren, Elkarteen Erroldatik:

- Desegite-inskripzioaren erabakia.
- Batzar Orokor Bereziaren egiaztagiria.

Elkarteen Errolda zuen esanetara geratzen da erroldatze-alderdiei buruz dituzuen zalantzak eta kontsultak argitzeko. Kasu horietan, Elkartearen inskripzio-zenbakia adierazi behar da.

Begirunez,

Con fecha 4 de mayo de 2005 el Ilmo. Sr. Director de Estudios y Régimen Jurídico ha dictado resolución por la que se acuerda la inscripción de disolución solicitada por la Asociación KARDABERAZ JAKINTZA BAZKUNA, de TOLOSA (GIPUZKOA).

A este respecto, se le comunica que puede Vd., o persona autorizada, retirar del Registro de Asociaciones, previo pago de la tasa correspondiente, la siguiente documentación:

- Resolución de Inscripción de Disolución.
- Certificación de la Asamblea General Extraordinaria.

El Registro de Asociaciones queda a su disposición para aclarar cualquier duda o consulta que deseen formularnos en relación con los aspectos registrales que corresponden al mismo, debiendo indicar en tales casos el número de inscripción de la Asociación.

Atentamente,

Donostia-San Sebastián, 2005eko maiatzaren 11n.
En Donostia-San Sebastián, a 11 de mayo de 2005.

ERROLDA ARDURADUNA
EL ENCARGADO DEL REGISTRO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
Elkarteen Errolda
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Asociaciones

Dña. Miren Eurne Moraiz Arrue *And.*
PRESIDENTA DE LA ASOCIACIÓN KARDABERAZ JAKINTZA BAZKUNAKO PRESIDENTEA
TOLOSA (GIPUZKOA)



ERABAKIA, 2005EKO MALATZAREN 4KOA, AZTERLANEN ETA ARAUBIDE JURIDIKOAREN ZUZENDARIARENA, TOLOSAKO (GIPUZKOA) KARDABERAZ JAKINTZA BAZKUNA ELKARTEAREN DESEGITEA ELKARTEEN ERROLDAN INSKRIBATZEN DUENA.

RESOLUCION DE 4 DE MAYO DE 2005 DEL DIRECTOR DE ESTUDIOS Y REGIMEN JURIDICO, POR LA QUE SE INSCRIBE EN EL REGISTRO DE ASOCIACIONES LA DISOLUCION DE LA ASOCIACIÓN KARDABERAZ JAKINTZA BAZKUNA, DE TOLOSA (GIPUZKOA).

TOLOSAKO (GIPUZKOA) KARDABERAZ JAKINTZA BAZKUNA Elkartearen desegitea Elkartearen Erroldan inskribatzeko espedientea hasi da elkarte horren eskariz, honako hauek direla

En relación con el expediente incoado a instancia de la Asociación KARDABERAZ JAKINTZA BAZKUNA, de TOLOSA (GIPUZKOA), para la inscripción en el Registro de Asociaciones de la disolución de la misma, y en base a los siguientes:

GERTAKARIEN AURREKARIAK

ANTECEDENTES DE HECHO

I.- TOLOSAKO (GIPUZKOA) KARDABERAZ JAKINTZA BAZKUNA Elkarteak, 1985eko urriaren 9an eratu eta Elkartearen Erroldan 1985eko urriaren 9an eta AS.R.P.G.01633 zenbakiaz inskribatuak, desegitea erabaki zuen batzar orokorrak 1998ko urtarrilaren 17an egin zuen bilera berezian, bozketa beharrezko quorum-az eta deialdia legez egin zelarik. Hona hemen desegitearen arrazoia:

I.- La Asociación KARDABERAZ JAKINTZA BAZKUNA, de TOLOSA (GIPUZKOA), constituida el 9 de octubre de 1985 e inscrita en el Registro de Asociaciones con fecha 9 de octubre de 1985 y número AS.R.P.G.01633, en sesión extraordinaria celebrada por su Asamblea General el día 17 de enero de 1998, con el quorum de votación requerido y previa convocatoria realizada en legal forma, acordó su disolución por:

"bazkideen borondatez".

"voluntad de los socios"

II.- Zerbitzu eskudunak aurkeztu diren agiriak egiaztatze-aldi arautuan aztertu ditu, eskatzaileak Legean eskatzen diren gaitasun-betebeharrak eta betebeharrak formalak betetzen dituen egiaztatzeko.

II.- Por el Servicio competente se ha procedido en trámite de verificación reglada a analizar la documentación presentada, a fin de comprobar si la solicitante reúne los requisitos de capacidad y de carácter formal establecidos en la Ley.

OINARRI JURIDIKOAK

FUNDAMENTOS JURIDICOS

LEHENENGOA.- Espediente hau pertsona legitimatuak eragin dute, eta berori erabakitzeke funtsezko zat jotzen diren agiri eta xehetasun guztiak gehitu zaizkio.

PRIMERO.- El presente expediente ha sido promovido por personas legitimadas para ello, y al mismo se han aportado cuantos documentos y datos se consideran esenciales para su resolución.

BIGARRENA.- Elkartearen buruzko 3/1988 Legeko 19. artalean xedatutakoaren arabera, bazkideen nahari erantzuten dion desegiteak, Elkartearen organo eskudunak erabaki du, legez eta estatutuen bitartez ezarritako prozedurari men eginez, eta soberan zegoen ondare soziala estatutuetan aurrikusitako eran erabili da.

SEGUNDO.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 19 de la Ley 3/1988, de Asociaciones, la disolución obedece a la voluntad de los socios, ha sido acordada por el órgano competente de la Asociación y con sujeción al procedimiento legal y estatutariamente establecido, y se ha dado al patrimonio social sobrante el destino previsto en los Estatutos.

HIRUGARRENA.- Justizia, Lan eta Gizarte Gaietako Sailaren eginurako organoak eta egitekoena finkatzen duen otsailaren 4ko 44/2002 Dekretuak, Azterlanen eta

TERCERO.- El Decreto 44/2002, de 12 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad social,


 JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
 SEGURANTZA SAILA
 DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
 EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
 Donostia - San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
 Tel. 945 01 90 87 - Fax 945 01 91 56 - e-mail just-jurd-aiava@ej-gv.es



Araubide Juridikoaren zuzendariari ematen dio inskripzioaren bidez kotasuna erabakitze eskuduntza.

Horren guztiaren ondorioz,

IKUSIRIK Elkarteei buruzko otsailaren 12ko 3/1988 Legea, Elkarteen Errolda sortzen duen martxoaren 25eko 77/1986 Dekretua, lehen aipatutako 44/2002 Dekretua, Herri-Administrazioen Lege-Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko 30/1992 Legea eta aplikatu daitezkeen gainerako araudia, honako hau.

ERABAKI DUT

TOLOSAko KARDABERAZ JAKINTZA BAZKUNA Elkarteak erabakitako dsegitea dagokion errolda-orrrian inskribatzea, publizitate ondorioetarako soilik.

Administrazioarekiko bidea agortzen ez duenez, erabaki horren aurka gorabidezko errekurtsioa aurkez diezaioke eskatzaileek Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuari, erabakia jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean.

atribuye al Director de Estudios y Régimen Jurídico la competencia para resolver sobre la procedencia de la inscripción solicitada.

En virtud de cuanto antecede,

VISTA la Ley 3/1988, de 12 de febrero, de Asociaciones, el Decreto 77/1986, de 25 de marzo, por el que se crea el Registro de Asociaciones, el Decreto 44/2002 citado, la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y demás legislación aplicable.

RESUELVO

Inscribir en la hoja registral correspondiente la disolución acordada por la Asociación KARDABERAZ JAKINTZA BAZKUNA, de TOLOSA, a los solos efectos de su publicidad.

Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer Recurso de Alzada ante el Excmo. Sr. Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al del recibo de su notificación.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko maiatzaren 4an.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de mayo de 2005.

AZTERLANEN ETA ARAUBIDE JURIDIKOAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE ESTUDIOS Y RÉGIMEN JURÍDICO

Abel Lopez de Aguiñeta Quintana

Iz./Fdo.: Abel LOPEZ DE AGUIÑETA QUINTANA



AMAIUR IZENAREN OIARTZUNA

Joan dan udaran, Baztan'en barrena nenbillela, Amaieur deritzan amalautsu urteko mutikoa ezagutzeko zoriona izan nizuten. Zeraman izen eder eta arrigarriak zerbait esaten ote zion zirika-galdera egin nionean, ipi-apa jalki zidan, eta bai pozik ere, deitura trinko ta atsegin orrek adierazten duan guztia.

Aitonak, napar abertzale sutsuak eta gudari izandakoak, bein eta berriz txiki-txikitandik kontatzen omen zion izen orri buruzko dan-dana, au da, euskal edesti-zatirik ederrene-takoa, ain zuen.

Ortik, ba, mutillaren arrazoizko poza bere izenaren edesti-gaia nori konta izan zuanean. (Ta berak ba'leki, oraindik ere, arretaz entzuten ari nintzaionean bezelaxe, bere poze-zeko itz txeratsuak oiartzunka ari zaizkidala nere biotzean!).

Geroago, ikastolan, maisu euskaldun baten bitartez ikasi zituan orren inguruko zertzelada guztiak. Alde ederra leengo erderaren kabi gorrotagarri ziran eskolak eta gaurko ikastolak!

ETXEKOEN ETA IKASTOLARN ERAGIÑA

Gaztetxo baten ezpaitatik edesti-xeetasun auek entzutea benetan zoragarri gertatu zitzaidanik ez dezaket ixildu. Zenbat dezake aita abertzale batek, ama abertzale batek, ikastola batek! Gaztetxoaren azibidean guraso ta ikastolak daukaten erantzunkizuna ezin ba, aundiagoa izan.

Mende erditsu au ez da dana ixiltasun osoa izan ez beso-antxumaketa, zorionez. Danok, norbere buruaren eta abertzaletasunaren neurriko lana egiteko era, aalbide ta bidea izan dugu.

Gurasoen etengabeko jarraibidewa, etxe ta ikastola berrien ekiña oso eraginkorra ta sarkorra gertatu ez danik ez dit neri iñork ukatuko.

Ez ba, guri esan gaurko euskal giro zuzpergarri au berezko sorpena izan danik, perretxikoen antzeko zerbait-edo alegia, an-emengo ta gaurko zaar eta urtetsu diran abertzale askoren etxe-lan ondorena baizik, tantaka baiña barrenkorra egin danarena baizik.

Eta au da benetan iraunkor, leber eta ez gauetik goizera axaletik egin oi dana.,

“AMAIUR”, NAPAR-ALDIZKARIA

Guda aurretik, Errepublika-garaian, ba'zan napar-abertzaleen astekari bat, “Amaieur”, eta Donostia'n ere, Bulebar-ertz zurrumbiltasun gure Euzko Gaztedi'ko mutillak oiukatu ta saldu oi zutena.

Ain zuzen, Tafalla'ko abertzale aguretu-gazte batek, biotza abertzaletasunez gaiñezka zeraman batek –gaur zeruan-pitxirik gordegarrienetakotzat zeuzkan orri-ale guztiak, urtetako izkuntza-tokirik atera ta erakutsi zizkidan aspalditxo batean ikastaldi bat egitera joan gintzaionean.

Aldizkaritxo xume aiek ikusirik eta gizon zintzo ta urtez abaildutako aren poza nabariturik, begiak ñir-ñir, neroni ere arrako bakanaz eta zirrarez bete nintzala ezin esan ote dezaket?

Ba'da, nion nere buruari, ba'da bai abertzaletasuna nai-korik gure aberrian, baita napar artean ere; eta orain arte, azken auteskunde auetan alegia, nai bezelako igali eldurik

eta pozarik ekarri ez ba'digu ere, noizpait alabearrak irripar egingo digulakoan gaude Naparroa'n ere.

GERTA-LEKUAN BISITARI

Erderaz “Maya” eta euskeraz “Amaieur” deritzana, Naparroa'ko errixka bat da. Bertan egona naiz, bertan xarmapean egon ere. Begiak itxiz ikus-irudi zitzaidan 473 urte leenago orube maitetsu artan gertatua.

Emen, 1.522'garrengo uztaila'k 19'an, bertako gaztelu ospatsuan zeuden napar askatasun-zale adoeretsuak, galtzori gorrian, kastellanuen oldarrezko erasoketari ezin eutsirik, errenditzea erabaki zuten.

Berreunen bat gudari omen ziran gazteluki artan, Naparroa'ren askatasuna-beregaintasuna berreskuratzea biotz eramanak. Alabaiñan, izkillu ta indarren aurka ezin izan zuten ezer egin. Txilketa oñazetsu-tamalgarria! Patuaren esku mingotsak!

Auxe ba, izan zan bere askatasuna gorde zuan Naparroa'ko azken erria.

Amaieur'ko gotorleku-buruzagiak, gaztelanien jarkipen gogorra zala-ta, txil-egitea erabaki zuanean, itz auek esan omen zituan: “Ez ditugu gure buruak ilko, biarko egunen batean gaur indarrez kentzen digutena berriro lortzeko, txit bearrezko gerta bait-daiteke gure bizitza”.

Gertakizun ospagarri aren laureun urteurrena bete zanean, 1.922'garren urtean alegia, eusko abertzaleak oroitari bat jaso zuten Amaieur'ko gaztelua zutitzen zan lekuan. Oroitarri onek etzuan luze iraun; 1.931'garrean, piperpote-zaleak, euskal pizkundeari zearka ta aierrez begiratzen ziotenak apurtu egin ziguten, askatasun-itza mingarri bait-zitzaian.

Orra ba, izen goxo orrek euskaldunentzat eta abertzaleentzat dakarren oroimin-pixua.

Lauaxeta'ren bertso oroimingarriak

Gasteiz'en gerratean afusilatua izan zan gure urretxindor-olerkari aundiak, gertari aren oroimenez eta gorazarrez, eresi biurtu daitezken bertso auek (emen laburki emanak) oreu zizkigun:

Amaieur gaztelu baltz ori
-berreun gudari oro sumin-
zaintzen zaituen zaldun onak
Naparra alde egin dabe zin.

Ikurrin bat -kate ta lili-
dorre goitian zabal dago.
Bera salduko daun semerik
mendi oneitan ezta jai.

Ordutik ona, -zenbat laño-
Naparroa'n ezta aberrik!

Aien kideko ta ezpal-ezpalekoak gerla ba'diogu, gure jokabidetan agertu gaitezen “itzetan lander, ekintzetan eder”.

Egaña'tar Gotzon

DOMINE SANDU EGUNA. ON BIXENTE LATIEGI



*Euskerazaintza'ren batzarra Donostia'n
2005-11-26'an*

(Easo kalea 26'an, SAN MARTIN PARROKIA - REPARADORAK)

Domine Santu eguna urbiltzean, joan direnen oroitzapena dugu gogoan. Oraingo onetan, Bixente Latiegi zor diogu Nafarrotik . Ura, naparra sentitzen zen, ala erraten zidan bein baino geiagotan: “Ni erdi naparra naiz”. “Nere ama Betelukoa zen”. Gogoz etortzen zen Iruñera, eta are gehiagokin oraindik, artzen genuen gure ondoan. Beti oroitzen naiz On Marcelino Gardekin zituen solasaldiak, ni ezagutu nuen garaietan..

On Bizente argia, jakintsua, langilea eta ausarta zen. Lau gaitasun auek landu zituen bitzitan zear, bai irakasle, bai idazle bezala ere. Ongi zekien euskaldunen edestia, eta zein ziren gure aztarnak. Bultzatu zituen artu-emanak

Aragoi eta Errioxako aldeetako jendeekin, aintzinean euskaldunak izan ziren tokikoekin adiskidetasuna eta aeieri irakatsi zien ainbertze gai ziur aski, inoiz aditu ez zituzten gauzak azalduz. Latinera ere oso ongi ezagutzen zuen, ortik izenak eta auen ikerketa egiterakoan zetorkion abildadea.

Kardaberaz Bazkuna eta Euskeratzaintzako bultzatzaile eta kidea izan zen. Baina azkeneko denboretan oso kezkatua zegoen bi Erakunde auen etorkizunaz. Alaxe zion il aitzinean, idatzi zidan esku-tiza batean:”Kide asko eta asko ilak zirelako, eta gazte ordezko falta zirelako”. Baina, naiz alakoa egoera nabarmena izan, bi Erakunde auetako kideek egindako eta idatzitako gogoak or diardute eta uste dut garaiz elduko direla beste denbora batzuk lan au guzia apretziako dutenak. On Bizente zenaren lana arrigarria izan da, Liburu eta atikulo ugari utzi dizkigu.

Elizako aferetan zuen jakinduria ere nabarmena izan zen. Aren iritzia askotan kontuan artu izan zen agintarien artean.

Famili arteko ezbeurrak ere, eta agitz zoritzarrekoak izan zituen On Bixentek. Auek ere, kategoriz jakin izan zituen gaintzen.

“Orixe”k zion bezala, au litzateke On Bixenten mezua: “Ia bada gure ondorengo gazteok! Aztertu ongi gure euskerak dauzkan adierazte alderdiak. Ez egin muzin araubide zearoari. Ar zazute zerontzat zerbait lotzen zautena, ez ba”da ere, zeuon buruak ongi ezteko”.

XOLE ERBITI –Iruña 2005

B

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

IPUIN SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'K, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariaketa iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala: – Ipuñiak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

– Ipuinak asmatu-rikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

– Luzeera iru orrialdetik laur orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

– Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterillan, baita DEIA Egunkarian be albait lasterren.

– Sariak bost izango dira:

1.ª 300,50 euro 4.ª 120,20 euro

2.ª 240,40 euro 5.ª 60,10 euro

3.ª 180,30 euro

– Ipuñiak zein ordegaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

– Epea abenduaren azkenera arte luzatzen da.

EUSKERAZALEAK

ALBOKEAREN BARRIAK

(MANTEROLA TA URIGOITIA GABIREL ABADE JAUNAREN OMENEZ)



Argazki onetan D.Gabirel Manterola abade jauna. Onen ezkerrean Zeanuri erriko parrokoa zan D. Jose Arrizabalaga jauna eta parrokoaren ezkerrean Martin Orbe abade jauna, Zeanuri'ko errian.

Albokeari buruz dagidan euskerazko lantxu au, Zeanuri erriko D.Gabirel Manterola Urigoitia abade jaunaren omenez eta oroimenez idatzi eta ZER aldizkarian argitaratzen dot (Foto 1).

Manterola bera izan zan bai albokalari ta bai albokeari buruz lanetan laguntzaille eta antxiñako idazki batzuk aurkitu eta emon eustazan. Euron artean neureganatuazo eustazan Zeanuri eta Zornotza erriko gertakizun batzuren idazkiak. Eta nire euskerea landu eta amar orritxuak berak bere idazteko makiñan idazkera obean jarri eustazan..

Zerk eroan nindun albokearen arlo orretara.

Umetarik albokea bere soiñuan zelan jotzen egozan be ikusi nendun eta bere soiñu-otsak entzun be bai koplak

kantuakaz batera, baita alboka ta koplak-soiñuetan be zelan dantzan egiten eben.

Antxanda'ko San Roke egunean, albokea jotzen egozagandik, Zeberio erriko "Txisperue" albokaria zala nire familikoai be esan neutsen, baiña Galdakao'n irailleko Santa Kurtzeko jaiakaz beti ezagutu dot, lenago jaiak izan ziran parajera bai auzo ta errietatik be famili artekoak eta geiago be jaiak egoten ziran auzune ta errietara be konbidetu joaten ziran. Eta ori orrela izaten zala, Gañdakao'n bertan be, bai nire aitaren aldetik baita bere koñetu Bernardo Elezkano'ren aldetik (nik lau urte neukazela), Zamakoa auzora nire aitaren arreba Jazinta Barrenentxea eta onen senar Bernardo Elezkano senar-emazteen etxera Santa Kurtzetako konbiteagaz joaten gaintzazan.

Nire osabaren anaietatik Diburtzio Elezkano albokaria be baslatzn aurkitzen zan.

Bazkaritan jarrita egozala, eta ostean be bai, Diburtzio'k albokak jo eta nire aitak eta osaba Bernardo'k koplak kantau eta naiko jenetek kanta-soiñuai txaloakaz laguntzen eutseen eta kantei be bai, Urkiola'ko... Goizean Paris'en... eta lolako martxak eta koplak, baiña lenengo ta bigarrena (jota ta arin-arin) albokeagaz jotzen pareu orduan, maiko batzuk korruan dantzan be paretan ziran.

Urte gitxiren barruan, Santa Kurtezetako jaietan, Zamakoan, Elezkano'tarren familia be ezagutu neban, euron artean Jose Koplalaria eta Txilibrin albokaria.

Gauzak orrelan, gaztetatik alboka bat eukiteko gogoa be ba-neukan eta 1956n. urtean Igorre erriko Luis Barañano jaunak, bere etxeko kamaran egon zan alboka zar bat niretzat emon eustan eta albokalari eta albokeari buruz astiro ta nasai lanean pareu nintzan. 299n. ZER'en esaten dodan lez.

Ortik 1960n. urtera arte Andra Mari Dantza-Taldean, txartel baten alboka'ren irudi bat zala Gabonak ospatu ziran.

1963n. urtean folletotxu bat egiten pareu eta urte orretan Bizkai'ko Aurrezki- Kutxak ordaindu euskun Dantza-Taldeari.

Eta taldekoak folletoaren eragintza egin gendun. Folleto ori batzuren artean osotu gendun, alboka ardura geieneko ori neurea zala baiña alboka-bearrak nik Zeanuri errira Gabirel Manterola abade jaunari eroan neutsazan nire euskerea berak landu eta makiñan idatzi dagian eta berealaxe Gabirel jaunaren laguntza, lana amaitzea eta berak makiñan idaztea lortu nebazan.

ERESA

Andra Mari Talde'ko lagunak 1963n. urteko folleto-txuaren jaube antzeko, nik eskatu gabe eta nik esan barik, EL CORREO ESPAÑOL EL PUEBLO VASCO baita LA GACETA DEL NORTE egunkarietan autore edo egille orrela esanda izendatu ninduen

1964n. urtean Andra Mari Dantza Taldeko Jose Maria-no albokariak eta Erromalda Zuloaga pandero-jotzaille eta kantalaria kaz alde batetik eta bestetik Erromalda'k, Martzelo Arrieta soñulariagaz , CINSÁ etxean diskotxu bat egin gendun eta disko ori Euskal Errian zabaldu zan.

Jose Luis Bengoa Zubizarreta jaunak Gasteiz'en Bilbao'n, Barakaldo'n eta abr, albokari buruz itzaldiak emon ebazan, Jose Mariano eta Erromalda itzaldietara alboka ta pandero joten eroanda. Eta Andra Mari'ko folletotxuak lekuen-lekuen bananduten ziran.

Euskal Erriko folklore edo erri-jakintzari buruz , Gabirel jaunagandik asko ikasi neban eta orretan bera izan zan nire lenengo maisu ta irakasle.

Irakurleak 10 orrialdetxutan akatsen bat-edo aurkituko dau "rr" barik "r" eta olakoak, baiña seriozko eta euskeraz lenengo bearra zan lez, inprentara joan-arte ez gendun akatsik kendu gura, eta orrelan geratu zan.

Albokari, panderozale, koplalari, alboka-jantzalari euren soñu, kantu eta esan-bearrak baita bibliografia be, biltzen nebillala, Aita Donostia'ren Artxiboaren zuzendari zan Jorge Riezu aita kaputxiño jauna ezagutu nendun, baita Bilbao'ko D. Pablo Bilbao Aristegi eta Francisco "Patxi" Abrisketa Irakulis, Colombia'n bizi zan bilbotar



jauna. Bogota'n Euskal Biblioteka on bat eukan gizona be ezagutu neban.

Riezu jaunari Baztan'en, Lekaroz'ko kolejoan albo-kea eta onen inguruko lan bat euskeraz, españeraz eta frantzeraz egiteko neukan asmoa azaldu neutson. Baiña bear aundi ta gastu aundikoa izango zala-ta, nik dirurik ez neukan eta bere aolkuz eta laguntzaz eta D. Pablo eta onen senide Abrisketa jaunen diru-laguntzaz ALBOKA: ENTORNO FOLKLORICO egin zan.

Folklore eta euskal jakintzaren arloan nire maisu aundia Riezu jauna izan zan. Baiña beste maisu aundi bi be euki nebazan: Aita Jose Migel Barandiaran abade jauna eta D. Manuel Lekuona abade jauna, Euskalerriko jakintzari buruz eurokandik be anitz gauza ikasi nebazan.

Ez daukat aitzuteko D. Domingo Egilleor "Txomin" jauna, alboka-kantak partiturara orain 90 urte-inguru pasatu ebazan, eta nire ustez bera zan, lenengoa edo lenbizikoa. Berak 94 urte zituezala, beren etxean Juan Jose Altuna txistulariari eta neuri txistuentzat obratxu bat txistuagaz joteko egin, geuri dedikatoria jarrita eta geuretzat opatu euskuen txistuekaz joteko. Eta orrelan amaituaz, D. Gabirel Manterola jaunak makiñan nire lana segidan datorkigu.

Jose Mariano Barrenetxea



ZURE ODOLAZ EROSI DITUZU

LAUAXETA

Mundua, miñez, egon,
ekaitzak zapalduta
samintasanpean,
ezer ez ta negarra,
larri, egon gizona
nekien artean.

Jainko Alguztiduna,
adi adi, egoan
lurrera begira,
gizadia ekusan
samiñak ondatuta
burutik oiñera.

Egoera larria
ezin ikusi eban
beraren semeetan,
eta Aitak Semea,
gogoz, bialdu eban
ordu estuetan.

Seme ona ba-dator
Aitaren esanera
lurtarrak askatzen
egiz, arrigarria,
biziaren Jaubea
saminbidea artzen.

Burleka darabille,
iñor, ez ba-litz legez
bizitza Sorlea,
ta ixilik, daroaz
neke-samin guztiak
Aitaren agindura.

Jantzi danak kendurik,
billotxik jarri dabe
gizonen aurrian,
iraiñez beteturik,
bizia kentzen dautse
Kurutz gogorrian.

Giza seme jatorra
Laukinizko gaiñean
sortu zan errira,
maitasunak lagunduz,
egunsenti ederrez
urbilduz argira.

Argien argi zara,
zeruak lagundurik,
Euskaldun lurrean,
zerua eta lurra
maitegarriak ziran
Laukiniz gaiñean.

Argia artu zendun
doai zoragarria
txinparta artian,
egiz, zaindu zenduan
ertizko doai ori
bizitza guztian.

Berezko doai argiz,
gozaro, eldu ziñan
Euzko Parnasoera,
ta zuk, beti, erantzun
gogorik onenagaz
euskal itz erara.

Goienengo mallara
eldu ziñan olerkiz
euzko lur guztian,
euskaldun jakintsuak
sartu zinduezan
itz eder argian.

Olerkari argia,
erriak maite zaitu
gizon ta olerki,
itza goratu dozu
euskaldun izatea
agertuz maiteki

PAULIN

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

NARRAZTIAK

Bibliak atsegin-baratzean sugeari madarikapen au ezarri eutson: "Narraz ibilliko zara zeure bizitza guztian eta autsa izango dozu janari". Baiña orrek ez dau esan gura aurretik sugeak oiñak eukazala, lendik eukan biziera au orain zigor biurtzen dala baiño. Antzera izan zan lana gizakiarentzat edo semea izakerako miñak emakumearentzat.

Sugeak ankabakoak dira, esaterako kobrak, sugegorriak eta kriskitinak.

Narraziak bizkardunak dira baiña anka bakoak. Narrua eskamaz estalita eukiten dabe eta birien bidez artzen dabe arnasea. Arrautzen bidez ugaritzen dira.

...

Anfibioak:

Batzuk uretan eta leorren bietan bizi dira, anfibioak dira. Oneik be bizkardunak, ule-bako narrudunak dira, birien bidez artzen dabe arnasea aunditzen diranean, eta arrautzen bidez ugaritzen dira. Batzuk arin egiten dabe aldakuntza, esaterako sapaburuak ugarixo, beste batzuk, ostera, oso astitsua.

...

Muskerrak-eta

Odol otzekoak dira, baiña eguzki-zaleak. Eta mundu osora zabalduak, gure artean ikusten doguz muzker orlegiak, orma-muskerrak; apotxali txikiak, politik, begi baltzakaz, eta mezedegilleak dira mozorroak jaten dabezela-ko.

Zirauna ankabakoa da eta errez zatitzen da, eta ez dabe beste janaririk bareak baiño.

Baranoa da muzkerrik aundiena eta 3m. ditu luze.

Muzker bi dagoz oso posoitsuak: elodermo ikaragarria eta Ameriketean bizi dan jila. Biak dira basamortukoak.

Onein artekoak dira kamaleoiak be, oneik margoa aldatzen dabe errez eta alde bitara begiratu leikee, begi biak alkarregandik aske daukezelako, janaria arrapatzeko min luzea ateraten dabe

Muzkerrik aundienak 2'50 m. luze dauz, baiña apotxaliak 0'03 m. baiño ez.

...

Kokodrilloak

Leorreetan bizi dira eta mota bakar bat sartzen da itxasorra.

Ganges ibaian bizi dan gabial'ak arrain asko jaten dau eta uretan dagoanean enbor zar baten antza dauka. Ondargaiñean egiten dauz arrautzak eguzkiak berotu dagizan.

Otzari dautso bildur era ura urritzen danean lupetz-artearen bizi izaten da.

...

Sugeak

Suge-motak 2000 baiño geiago dira eta euretatik bakar batzuk baiño ez dagoz gure artean.

Gorputza eskataz estalduta dauke eta sarritan margo ederrez apainduta.

Ameriketean bildur aundia dautse joal aundi eta arroari, mokasin ikaragarriari eta mustur-lantzadunari.

Kriskitin edo kaskabel-suge aundia be pozoitsua da baiña aurka datorrenean zarata bereizi bat egiten dau, kriskitina edo kaskabela, ortik bere izena.

Sugerik aundiena boa da, 3m. luze. Piton eta Amazonas'en bizi dan anakonda be okerrak dira. Oneik 10 m. luze euki leikeez. Arrapatzen dabena bizirik iruntziten dabe baiña lenengo ilda be jan leikee.

...

Antxiñako narraziak

Milloika urteak dirala, (275 milloi urte), narraziak ziran munduaren jabe. Oso aundiak ziran. Landarak be orduak oso aundiak ziran, irea edo goroa esaterako.

Legorreetan dinosauriak ziran errege, itxasoan iktiosauriak eta eguratzean pterosaurio, egalari beazduna zan nagusi.

Baiña guztiak eukezan izakera bardin batzuk, esaterako buruko garaun txikiak eukezan eta orregaitik zentzun gitxikoak izan bear.

Milla dinosaurio-mota egozan, 150 milloi urte dirala zutunik ibiltzen ziranak, beste batzuk oskolagaz estaltzen eben gorputza, batzuk bedarra jaten eben. Gaur diplodoko edo eztenbikoa deritxonak bost etxe-maillako etxean teillatuepean egoan abia ederto artuko leukean.

Brontosaurioak 30 toneko pisua eukan, baiña buruko garaunak libra bat baiño ez. Egunean 300 k. bedar jaten ebazan. Madagaskar'eko piornis'ek egiten eban arrautzak 10 litroko bonbilla baten neurria eukan.

Dana dala, gaurko gure balea da astunena, pizti guzti orreik baiño aztunagoa.

...

Igelak

Oneik anfibioak edo ur-legortarrak dira, bizitarik erdia uretan eta beste erdia leorreetan igaroten dabe. Odol otzekoak dira eta birikien bidez arnasea artzen dabe.

Arrobioa sorginkerietarako artzen zan.

Ajolotea Mexiko'n bizi da eta guztien artean ikusgarriena da.

Aundiena ajalote Japon'go arrobioa da, 1'50 m. luze.

Igel edo ugazario-motak milla baiño geiago dira.

...

Dortoka

Geienetan maskor-barruan itxita bizi da eta nekez ateraten dau burua.

Eun urtean bizi leiteke. Ez dauko agiñik, baiña pikua bai gogorra ta zorrotza eta amurrua artu ezkerre errez zulu- ta lekez atzamarrak.

Itxas-bazterreko are-artearen egiten dauz arrautzak.

Australia'n dago geien baiña mundu osora zabalduta dago, Galapagos ugarteak dira ospetsuak pizti oneikaitik.

OLAZAR'tar Martin'ek moldatua

ERRIALDE GUZTIEN EDESTIA

GREZITARRAK (K.A. 1200-323)

Europa'ren egun-sentian gagoz. Errialde asko ebiltzazan erakunde barik, ara ta ona ibiltzen, enda bizkorak, odol berokoak.

Onein artean agiri dira mongoliar apentzailleak, zaldiz ibiltzen zaleak. Inditarrakandik zerbait ikasi eben. Olakoen artean agertu zan Grezia, munduak ezagutu dauan giza-girorik ederrena sortu ebana.

Onein lurra arritsua, menditsua ta latza zan baiña mendietatik itxasora bitartean ibar-zerrenda luzeak aurkitu ebezan grezitarrak. Eta ibar-barrenetan uri alaiak egin ebezan. Ugariak ziran ibar-arteetako alorak eta aldapetako mastiak eta olibadiak. Ardiak be ugari eukezan eta ortik ateraten eben ain bearrezkoa eben artulea. Merkataritzaz eben beste aberats-bide bat.

Langille onak izan ziran antxiñako grezitar areik. Brontzeko tresnak eta buztinazko ontziak asko agertu dira lurralde aretan, marfillezkoak eta metalezkoak be bai.

Itxas-ontzi ariñenetan ebiltzazan, morroiak arraulari ebezela, euren merkataritzan arri-bitxiak, aleak, eunak zurezko gai apainduak saltzera eroateko.

Euren kaiak beti egozan jentez gainezka, azokarako beti gertu.

Ori ta guzti be, Grezian beartsu asko egoan, morroiak geiago, txabola koskorretan bizi izaten artilez narrua estaltzen ebela, arda zurrutada batzuk orio-garauak eta ogi kopauak jaten.

Salerosleak diru-etxe edo bakuak be sortu ebezan azoketarako eta geroago aseguru-elkartea be bai.

Azoka (Geroago "agora") izan eben jaurketa arazoak konpontzeko lekua, eta olako urietan dau iturria erri-agintaritzaz edo "demokraziak" beste inon baiño lenago. Ez ebezan legeak artzen errege ta abadeengandik, autarkiz aukeratzen ebezan euren agintariak. Orretarako batzarrean aurkezten ziran erri-arazoak: zergak, beste erriakaz artu-emonak, gudaritza eta abar. Jatorrak baiño ez ziran autarkidun eta jatorra izateko bertan jaioa izan bear zan. Morroiak ez eukin autarkirik, emakumeak be ez. Grezia'ko demokrazian amarretik bat ziran autarkidunak.

Agoraren ondoan egozan ikastolak eta gazte gitxi batzuk egiten eutsoezan euren maixuai itaunak eta euren erantzunak artuz ikasten eben, maieutika bidez.

Grezia'ko iparraldean egoan Olinpo mendia guztiz ezaguna zan, "jainkoen egoitza" eritxona, baiña erlejiñoak gitxi arduratzen ebezan eta euren akatsak jainkoai be ezarten eutsezan, baiña jainko erreik beti egozan erriaren alde Olinpo'ko euren egoitzetik. Zeuz zan nagusi, Era bere emaztea. Zeuz'en anai bat zan uren jainkoa eta arba bat leorraren jainkoemea. Lurpearen jainkoa be orreien etxeko zan. Atenaisa zan jakiturian jainkoemea, eta batez be Atenas uriaz zaintzen eban alboko tontorrean bere jauretzea ebala. Itxasotik ikusten zan jauretze ori eta ara begiratzen eben

mariñelak estualdietan. Zeuz'en semea zan Apolo'k gidatzen eban eguzki-gurdia. Jainkoen inguruak ipuin luzeak edesten ebezan.

Erlejiño onek ez eukan geroko bizitzearen ardurarik.

Jainkoai eleiz bikaiñak, eta marfillezko irudi ederak egin eutsezan Olinpo'tik begira egozan jainko arei. Euren omenez egiten ebezan abestiak, dantzak eta ariñeketak, joko, jolas eta jai aundiak. Oneik biurtu ziran gero Olinpo-joko. Antzerki-ikuskitunak be eratzen ebezan eta olako gaien idazleak ospetsu biurtu ziran.

Punterengo uria Atenai zan eta an sortu ziran etxe-giñik bikaiñenak, irudigille entzutetsuak, jakitunik aundienak eta pentsalaririk onenak.

Atenai'ren urrengo datorkuz beste uri batzuk: Teba, Korinto, Esparta. Esparta onek ekarri ebezan guda-bideak eta gorrotoa Grezi'ra, erriar guztiak gudari biurtu-ondoren.

Pertsia sortu jaken alboan eta oneikaz Maraton zelaian guda ikaragarriak gertatu jakezan, baiña Esparta'tarrak Termopilas mendi-artean itxaron eutsen eta inguruko mendietara iges egin bear izan eben pertzirik, baiña dollor batek mendibide ez jakitunik eroan ebezan pertsitarrak atzeko aldera eta oneik, bizkarretik eraso eginda garbituak izan ziran Termopilas'eko grezitarrak. Pertsitarrak mendi tontoretan geratu ziran eta bildurgarriak ziran Atenai'tarrentzat. an ikusten eben ke-moltzo aundiak. Azkenean jatsi egin ziran eta Atenai'ri sua emon eta uria ondatu egin eben beronen edertasun guztiakaz. Itxasoan egin eben urrengo gudaketa eta pertsitarrak iges egin bear izan eben.


Atenai errea izan ondoren, barri bat sortu eben ederragoa, Perikles agintari ebela, baiña atenaitarren eta Espartatarren gudak jarraitu eben alkar ondatu-arte.

Egoera larri orretan egozala, Mazedonia'tik agertu zan errege gogotsu bat, erri guztiak alkatuko zituan: Alexander. Onek sortu eban elendarren aro barria. Filipinoen semea zan eta aitak greziatarren artean ezitzaile on bat aurkitu eutsen, Aristoteles.

Alexander'entzat ez zan naikoa Mazedonia, ez eta Grezia osoa be, Asia txikira joan zan guda egiten, andik lau urteren barruan Ejipto'raiño eldu zan bideko jentetza eta erri guztiak zapalduz, Babilonia, Asiria eta Pertsia bera be bai ango satrapak menperatuz, erregea kendu eta bera jarri zan errege-aulkian. India'ra be eldu zan, mendiak zear, baiña bere gudariak aspertu egin jakozan urteen joanean eta Indo ibaia igaro bear zanean, gudariak "planto" egin eutsen. Alexander'ek ez eukan atzera egitea baiño beste biderik, baiña ogeta amairu urtekoa zala sukarrak jota il zan Babilonia'n munduaren jabe zala.

Olazar'tar Martin'ek

EUSKALDUN BARRIENTZAT



EZKERREKO IRUDIAKAZ, ESKUMAKO BAT EGIN BEAR DOZU. ZEIN?

KARMELE

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera erooten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

EUSKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 euro)

BBK

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilerro,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk²